

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo udal aterpetxea erabiltzeagatiko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzari

Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Aguraingo udalbatzaren 2023ko martxoaren 30eko erabakia behin betiko bihurtu da automatikoki. Erabaki horren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo udal aterpetxea erabiltzeagatiko prezio publikoa arautzen duen ordenantza ezartzeari, eta ordenantza horren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 19. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

AGURAINGO UDAL ATERPETXEA ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

1. artikulua. Oinarriak eta izaera

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, udal honek, kontuan hartuta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatutakoa, ordenantza honen izenburuan aipatzen den prezio publikoa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera.

2. artikulua. Zerga egitatea

Prezio honen zerga egitatea Foru kaleko 11. zenbakian dagoen udal aterpetxearen zerbitzua ematea da.

3. artikulua. Sortzapena

Zerbitzuaren erreserba egiten den unetik sortzen dira prezioaren sortzapena eta hura ordaintzeko betebeharra. Erreserbak bertan behera utziz gero, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

4. artikulua. Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, zerbitzua eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, eta, hala badagokie, emandako baimenaren titular direnak.

5. artikulua. Erantzuleak

Subjektu pasiboaren zerga betebeharreratik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 41. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoek.

6. artikulua. Ordaindu beharra

Tasa ordaintzeko betebeharra udal aterpetxea erabiltzeko zerbitzua erreserbatzen den unetik aurrera sortzen da. Gerta daitezkeen kalteen erantzukizuna erabiltzaileena izango da, eta kalte horiek konpontzeko eska dakieke.

7. artikulua. Zerga kuota

Aplikatu beharreko tarifa honako hau izango da:

Aterpetxea erabiltzeagatik, litera batean logela partekatuan, sukaldea eta dutxak erabiltzeko eskubidearekin: 10,00 euro pertsonako eta gau bakoitzeko.

8. artikulua. Kudeaketa arauak

Udal aterpetxea erabili nahi dutenek erreserba egin behar dute horretarako dagoen aplikazio informatikoaren bidez.

Erreserbaren arabera, ordenantza honen zazpigarren artikuluan ezarritako tarifa aplikatuta ateratzen den likidazioa egingo zaie interesdunei. Likidazioaren zenbatekoa horretarako dagoen aplikazioaren bidez ordainduko da. Edonola ere, aurrez ordaintzea ezinbestekoa izango da aterpetxea aprobetxatu edo erabiltzeko.

Erabilera pribatuak edo aprobetxamendu bereziak, edozein delarik kausa, udal jabari publiko-a apurtu edo hondatzea eragiten badu, onuradunak, dagokion tasaz gainera, egin beharreko berreraikitze edo konponketen kostua osorik ordaindu beharko du, baita horren zenbatekoa aldeztatik gordailutu ere.

9. artikulua. Salbuespenak, murrizketak eta legez aplikatzekoak diren bestelako onurak

Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 5eko 2/2004 Legearen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ez da inolako zerga onurarik aitortzen, hauek izan ezik: nazioarteko itun eta akordioetan ezarritakoen ondorio direnak edo lege mailako arauetan jasotakoak.

10. artikulua. Arau haustek eta zehapenak

Zergen arau hausteen kalifikazioari dagokion guztian, bai eta horiei kasuan-kasuan dagozkien zehapenen gainean ere, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 178. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratutakoan sartuko da indarrean, bat etorritik Toki Ogasunak arautzen dituen 2/2004 Legearen 17.4 artikuluan jasotakoarekin, eta indarrean egongo da hura aldatzea edo indargabetzea berariaz erabaki arte.

Ordenantza honen behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Horrek guztiak ez du eragozten egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkeztea.

Agurain, 2023ko ekainaren 1a

Jarduneko alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES